

# voestalpineko BAZKIDE KOMERTZIALENTZAKO JARRERA KODEA

**voestalpineko BAZKIDE KOMERTZIALENTZAKO JARRERA KODEA.** Jarrera Kode honek voestalpineren printzipio eta eskakizunak definitzen ditu bere hornitzaile onekiko eta zerbitzuekiko; eta baita bitartekariakiko, aholkulariakiko eta gainerako bazkide komertzialekiko ere. Printzipioak eta eskakizunak voestalpineko Jarrera Kodean eta Nazio Batuen Munduko Itunaren printzipioetan oinarritzen dira.

## Legeak betetzea

- » Bazkide komertzialak konpromisoa hartuko du ordenamendu juridiko egoki(eta)ko legeekin konplitzeko.

## Errespetua eta zintzotasuna

- » Bazkide komertzialak konpromisoa hartuko du giza eskubideak funtsezko balio bezala errespetatzeko eta begiratzeko, Giza Eskubideen Babeserako Europako Hitzarmenaren eta Funtsezko Askatasunen eta Nazio Batuen Gutunaren oinarriaren gainean. Hau baliozkoa izango da bereziki haurren-lanaren eta bortxazko-lanaren debekuetarako, langileen tratu-berdintasunerako eta interesen-ordezkaritzaren eta negoziazio kolektiboen eskubiderako.
- » Bazkide komertzialak konpromisoa hartuko du gainontzean, bere langileen osasunaren eta segurtasunaren erantzukizuna onartzeko.

## Lehia zintzoa

- » Bazkide komertzialak konpromisoa hartuko du lehia librea ez mugatzeko, eta lehiaren gaineko legeriaren aldeko nazio edo nazioarteko arauak ez urratzeko.
- » Zehazki, bazkide komertzialak konpromisoa hartuko du voestalpineren lehiakideekin inolako akordiorik ez egiteko lehia-portaera zehazten edo eragiten duten merkataritza-gaiei buruz (adibidez, prezioak finkatzea edo merkatuak edo bezeroak banatzea), bai eta voestalpineren gai konfidentzialei buruzko informazioak ez trukatzeko ere – ezta alde bakarrekoa bada ere –, hala nola prezioak, salmenta-baldintzak, kostuak, lan-kargak, izakinak, etab.

## Ustelkeriaren debeku aktibo eta pasiboa/langileei etekinak edo abantailak (adib. opariak) emateko debekua

- » Bazkide komertzialak konpromisoa hartuko du inolako motako ustelkeriarik ez onartzeko; ez ustelkeria aktiborik (etekinak edo abantailak eskaintzea eta ematea; eroskeria), ez ustelkeria pasiborik (etekinak edo abantailak eskatzea eta onartzea) edo, nolabait, haiekin bat etortzea.
- » Bazkide komertzialak konpromisoa hartuko du voestalpineko langileei edo beren senide hurbilei oparirik edo beste etekinik edo abantaila pertsonalik (adib. gonbidapenak) ez eskaintzeko; opariaren guztizko balioak edo egoera zehatzek, ordainetan etekinaren edo abantailaren hartzailereanganako portaera jakin bat itxaroten dela ulertu ahal baldin bada. Hori horrela izatea, kasu partikularraren zirkunstantzia zehatzen mendean egongo da. Izatekotan, balio txikiko opariak eta abegi ona baimenduko dira negozioetako ohiko praktiken esparruan.
- » Bazkide komertzialak gainera, konpromisoa hartuko du helburu pribatuetarako salgaiak edo zerbitzuak erosten dituzten langileei, merkatuan ohiko prezio bat edo deskontuak edo beste abantaila batzuk eskaintzeko, voestalpineko langile guztiei ematen baldin bazaizkie soilik.

## Ingurumena babestea

- » Bazkide komertzialak konpromisoa hartuko du aplikagarriak diren lege eta araudi guztiak betetzeko, baita ingurumena babesteko nazioartean onartutako arauak ere.
- » Bazkide komertzialak konpromisoa hartuko du, halaber, pertsonentzako eta ingurumenarentzako arriskuak saihesteko, ingurumenean inpaktuak ahalik eta eragin txikiena izateko eta baliabideak neurrian erabiltzeko.

## Kapital-zuriketa

- » Bazkide komertzialak konpromisoa hartuko du kapital-zuriketari aurrea hartzeko legezko xedapen garrantzitsuak betetzeko eta kapitala zuritzeko jardueretan ez parte hartzeko.

## Informazioa eta jabetza intelektuala babestea eta datuak babestea

- » Bazkide komertzialak voestalpineren informazio guztia eta jabetza intelektuala modu egokian babestu behar ditu. Bereziki, bazkide komertzialak ziurtatuko du voestalpineko informazio konfidentziala isilpean gordetzen dela.
- » voestalpineren langile, bezero eta bazkide komertzialen datu pertsonalen prozesamendu oro (hala nola datuak biltzea, erabiltzea eta biltegiatzea) datuak babesteko aplikatu beharreko arauen arabera egin behar da.

## Hornikuntza-katea

- » Bazkide komertzialak behar bezala sustatuko du voestalpineren bazkide komertzialekiko Jarrera Kode honen edukia bete daitezela beren bazkide komertzialen artean.